

INDAR POLITIKO INDEPENDENTISTEN ARTEKO
AKORDIOAREN OINARRI ESTRATEGIKOAK
BASES DE UN ACUERDO ESTRATÉGICO ENTRE FUERZAS POLÍTICAS INDEPENDENTISTAS



LORTU ARTE

INDAR POLITIKO INDEPENDENTISTEN ARTEKO AKORDIOAREN OINARRI ESTRATEGIKOAK

EUSKO ALKARTASUNA eta EZKER ABERTZALEA tradizio, esperientzia eta jardura politiko ezberdinetatik gatoz; are gehiago, oso kontrajarrietatik, batzuetan. Ibilbidean, jarreretan eta ikusmolde zehatzetan izan ditzakegun desberdintasunak onartuta ere, bat datozen bideak adosteari lehentasuna emateko garaia dela uste dugu, euskal gizartearen gehiengoaren irriketan eta beharretan aurrera egiteko garaia. Euskal hiritargoak bere uste osoak, nahiak eta indarrak bidera ditzan indarrak batzeko unea da, Euskal Herria independente aurrerakoi eta ezkertiar baterantz egin beharreko prozesuan fase politiko berria irekiz.

Akordio hau, beraz, adostasunak bilatzeko ahalegin horren fruitua da eta hodeiertz garbia duen lan komunerako oinarriak finkatzen ditu: euskal Estatuaren sorrera. Horren arabera, izaera estrategikoa du akordio honek.

1. Erreferentzia politikoak

Euskal Herria, historian zehar bere berezko nortasuna eta bere buruaren jabe izateko borondate argia etengabe berretsi duen nazioa da. Horrela adierazi izan du erakunde politikoetan eta bere ordenamendu juridikoetan, boterearen barne-erabilera erabakitzeke zein kanpo-harremanak egituratzeko ahalmenei dagokienez.

Bere nortasun instituzionalaren aldeko borroka horrek liskarrak ekarri ditu bere asimilatze politiko, ekonomiko eta kulturala helburutzat zuten erresuma edota estatuekin. Borroka eta matxinada ondareak bizirik dirau estatu espainolak eta frantsesak gure nazio errealitatea eta dagozkion eskubide demokratikoak ukatzen jarraitzen dutelako.

Azken hamarkadetan, akordio hau sinatzen dugun indar politikook jarrera eta jardun desberdinak izan ditugu aitorpen nazionalaren eta subiranotasunaren aldeko borrokan. Indar politiko bakoitza ezaugarritu duten gogoetaren eta esku hartzearen giltzak aipatu nahi ditugu

laburbilduta.

EUSKO ALKARTASUNArentzat, Estatutuaren markoa, duela hogeitau urte baino gehiago hitzartutako autogobernuaren legezko oinarri formal gisa, gaur ez da nahikoa. Herri honek zituen premia larriei eman beharreko erantzun arduratsua izan zen garai hartan hitzartutako hura (une hartan eman zitekeen bakarra), negoziatu behar izan zenean inboluzio politikoaren arrisku handia zegoelako. Erantzun arduratsua izateaz gain, doktrina-ikuspegi batetik begiratuta gure Herriaren eskubide historikoak bermatu/babestu zituen. Estatutuak bere lehen kapituluan aitortzen duen bezalaxe, Euskal Herriari (komunitate naturala) bere naziotasuna emango liokeen komunitate politikoa osatzeko eskubidea du eta Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak, Nafarroa Garaiak bezalaxe, bertako partaide izateko eskubidea dute. Baina, azkeneko bi hamarkadetan eduki materiala galduz joan da etengabe bere interpretazioan eta ezarpenean izandako erasoak direla medio, espainiar Estatuaren oinarrizko legediaren hedapen amaigabeak ekarri dituen murrizketen bidez.

Hala ere, oinarrizko arazoa ez datza soilik Estatutuaren atal zehatzak ez betetzean, hori oso larriak izanda ere; oinarrizko arazoa zera da, Autogobernua martxan jartzea lortu zuen Ituna ez dela bete, baliogutxitu eta erlatibizatu egin dela, eta hori horrela gertatu dela, alde batek, espainiar Estatuak, hitza betetzeko borondate politikorik izan ez duelako. Eta ezin da ahantzi, Nafarroako Foru Hobekuntzak (herri borondateak inoiz berretsi ez duena) espainiar nabarrismoa politikoki eta sozialki sendotzeko bakarrik balio izan duela, eta Ipar Euskal Herrikoa bezalako egoera ere hor dagoela, bertan planteamendu berri bat egitea ezinbestekoa izanik herri bezala dagokigun legezko aitorpena lortzeko.

Gaur egun, euskal izaera nazionalaren berezitasun historikoaren eta politikoaren onarpena sistematikoki ukatzen dela dakusagu eta, beraz, abertzaleok ezin dugu zalantzan jarri, inondik inora ere, Estatutuaren markoa agorturik dagoela eta gaur egun ez dela euskal jendartearen gehiengoak dituen helburu politikoak asetzeko tresna egokia.

Beste alde batetik, EZKER ABERTZALEAK, azken hiru hamarkadatan herri honek bizi izan duen ibilbide politikoari buruzko hausnarketa egiterakoan, Xibertan euskal eragileen artean saiatutako akordioaren unea ekarri nahi du gogora erreferentzia gisa. Espainiar Estatuan frankismoaren erreformaren gakoak ezartzen ari ziren unean, Euskal Herrian eszenatoki

demokratikoa lortzeko helburu eta indarren bateratze baten beharra jarri zen mahai gainean.

Espainiako Konstituzioak, eta hortik eratorritako marko estatutarioek, euskal lurraldeen zatiketa arbitrarioaren gainean eta euskal subjektu politikoaren eta autodeterminaziorako duen eskubidearen ukazioan errotutako trantsizio politikoaren edukiak finkatu zituzten, betiere eskumen autonomikoen maila baldintzatuz eta Estatuaren erabakipean utziz.

Espainiako Konstituzioaren erreferendumak garbi utzi zuen marko juridiko-politiko horrek ez zuela Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa Garaiko gehiengo sozialaren babesik. Autonomia Estatuaren ondorengo formulazioak zein Foru Hobekuntzaren inposaketak argi erakutsi zuten, EZKER ABERTZALEAREN ustez, asimilazio politikorako tresnak izan zirela; hau da, amarru politiko hutsalak.

Horrexegatik, status demokratiko bat sendotzea beharrezkotzat jo du EZKER ABERTZALEAK, nazio aitortzan eta autodeterminazio eta lurraldetasun eskubidean oinarrituta. Hori izan da azken hogeita hamar urteotako bere ekimenen eta ahaleginen ezaugarria.

Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko egoera politikoaren ezaugarriak Estatu frantsesak egindako ukapena eta asimilazio ahalegin politikoaren ondorio dira. Halaber, Euskal Herriaren nazio-aitortza politikoaren eta autonomiaren aldarrikapenaren bidean emandako urratsen aurrean, frantziar estatuak sasi-tresnen bidez erantzuten jarraitzen du, asimilazio politikoaren ildo mantenduz.

Atzera begirako erreferentzia orokor horietatik abiatuz, eta EAEko Estatuaren garapena, Foru Hobekuntzarena eta Ipar Euskal Herriaren egoera ikusirik, EZKER ABERTZALEAK eta EUSKO ALKARTASUNAK egungo marko juridiko-politikoak agortuta daudela uste dugu, nazio aitortzan eta herri borondatearen errespetuan oinarritutako aldaketa politikoa ezinbestekoa delarik. Geroz eta eragile politiko eta sozial gehiagok bat egiten du egiaztapen eta eskakizun honekin.

Gehiengoaren eskakizun honek aurrez aurre du, oraindik, bi estatuen itxikeri antidemokratikoa. Hego Euskal Herrian, marko juridiko-politikoaren krisia, bere agortzea, "Estatu Itunen" (UPN-PSN-PSE/EE-PP) eta lege antidemokratikoen erabileran oinarritutako blokeo politikoko estrategiarekin

erantzun du espainiar Estatuak, "salbamen nazionaleko" tresna gisa hartuta gaindituta dagoen eredu konstituzional-estatutarioa berpizten saiatzeko. Blokeo estrategia honek, finean, aldaketa politikorako euskal gizartean dagoeneko garatuak eta errotuak dauden baldintzak aldatzea du helburu. Beso-borroka horrekin batera krisi ekonomikoa eta atzerakada antidemokratikoa ageri dira (justizia bide gisa erabiltzea, ustelkeria...). Hauek atzeranzko neurriak ekarri dituzte eskubide politiko, ekonomiko eta sozialetan euskal gizarte osoarentzat. Ipar Euskal Herrian, berriz, aitortza eta autonomia aldarrikapenek jakobinismo inposatzaile eta intolerantearekin egiten dute talka.

Baina demokraziaren aurkako jarrera horiek ez dira indar erakusle, estatuen ahultasun estrategikoaren isla baizik, bere nazio kontzientzian eta eskubide demokratikoen eskarian tinko dagoen herri baten aurrean. Uste osoarekin, eutsiz, dugun guztia emanez, borrokatuz eta etengabe matxinatuz une honetara iritsi gara, gure etorkizun kolektiboan eta aitortzan egiturazko aldaketak lortzeko behar diren baldintzetan. Gaur, "Euskal Herriak du hitza eta erabakia" printzipioa indar osoz zabaldu da kultura politiko guztien lotura demokratiko gisa; gainera, gure herriak bizi duen mendeetako gatazka politikoari behin betiko akordio egonkorak eskaintzeko oinarrizko erreferentzia bihurtu da.

Honekin batera, burujabetasunaren eta independentziaren aldeko jarrerak geroz eta atxikimendu handiagoa dute euskal jendartean, Euskal Herri demokratikoaren garapena eredu sozial alternatibo eta solidario baten zerbitzura bermatuko duten aukera gisara. Ondorioz, euskal jendartearen gehiengoak horrela erabakiko balu, bere buruaren jabe izateko Euskal Herriak duen eskubidean oinarrituta, gure jardun politikoa euskal Estatura lortzera bideratuko dugu.

2. Akordioaren funtsa, izaera eta ezaugarriak

Euskal Herrian ireki behar den aro politiko berriari begiratzen dion tresna taktiko-estrategikoa da akordio hau. Beronen bidez, gure herriak burujabetza osoaren bidean bizi duen une historiko erabakigarriari erantzuten diogu eta, honekin batera, mugimendu abertzalearen sektore zabal-zabal batean errotua dagoen nahiari. Independentziaren aldeko esparru aurrerakoi bat egituratzeko dimentsio politiko eta sozial nahikoa du

akordio estrategiko honek; horrenbestez, Euskal Herriak behar duen aldaketa politikoaren norabidean era egokian eragiteko ahalmena izango du.

Akordio hau gure herriarekiko begirunean eta konpromisoan dago oinarrituta, eta dimentsio instituzional, kultural, ekonomiko eta sozial guztietan bere mesederako izango den proiektu independentistarekiko atxikimendua bilatzen du. Gure helburua herri hau herri libre izatea da, bakean bizitzea, eta justizia sozialean zein gizon-emakumeen arteko parekidetasunean oinarritutako gizarte-eredu berria eraiki ahal izateko geure buruaren jabe izatea.

Gutxi batzuen interesen gainetik, alderdikerietatik kanpo, menpekotasunak baztertuta, herriaren gehiengoaren nahia izango dugu helburu eta erreferentzia bakarra, eta herri-gogo horrek denoi eskatzen digu ahalegina egitea, ahaleginak eta bi egitea, Euskal Herriak aurrean duen erronkari aurre egiteko. Ausardiaz jarduteko garaia da, jendarteak eskatzen duenari erantzuteko garaia. Sineste sendoekin, leialtasunez eta Euskal Herriak eskatzen dituen konpromisoekin.

Espainiar nahiz frantziar nazionalismoen uniformismo zuri-beltzaren aitzinean gure herriaren kolore-aniztasuna aldarrikatuz, bakoitzaren ibilbide nahiz kultura politikoari atxikita, iritsi zaigu indarrak biltzeko tenorea. Horrenbestez, helburuetan eta konpromisoetan konbergentziak bilatzeari erantzukizunez eta ilusioz ekiten diogu, jakin baitakigu hauxe dela garai historiko honek eskatzen duena.

Horretarako, akordioak honako ezaugarriak izan behar ditu:

- **Elkarren arteko errespetua.** Kultura politiko eta hainbat kontutan ikuspuntu ezberdinak ditugula jakinda, kontraesanak gainditzen ahaleginduko gara lan esparru komun guztietan adostasunak bilatzeko, betiere errespetuz eta borondatez arituz. Akordio-eremu honen helburua ez da errealitate objektibo hori desagerraraztea. Norbaitek bere ikusmoldea inposatzera joko balu, mesede kaxkarra egingo lioke adostasun honek izan dezakeen indarrari.
- **Elkarren arteko konfiantza.** Akordio honen edukien eta konpromisoen tamainak harreman berezia ezarriko du gure artean, lehentasunezko harremanak finkatuz gure hartu-eman politikoetan.

Errealitate horrek konfiantza eskatzen du, eta konfiantza elikatu egin behar da elkarrizketa, eztabaida irekia, akordioa eta erabakiekiko leialtasunaren bitartez.

3. Akordioaren esparrua

Akordio honen aplikazio esparrua Euskal Herria osatzen duten lurralde guztiek osatzen dute; nazio izaera du beraz.

Gure herria osatzen duten herrialdeen eta erabaki esparruen arteko erritmo ezberdinak kontutan izanik garatuko da nazio izaera hori eta, horrexegatik, egoera horiei erantzuteko asmoa dugu berezitasunak errespetatuz eta babestuz. Baina, era berean, uste dugu nazio-eraikuntzak eta gure helburu estrategikoek nazio mailako ikuspegia eskatzen dutela. Gauzak horrela, akordio hau Euskal Herriko esparru guztietara hedatuko da, bai geografikora nahiz sozialera.

4. Akordioaren edukiak

A) Esparru instituzionala

4.1. Egitasmo estrategikoa: Euskal Estatuaren sorrera

Akordio honen xede nagusia Euskal Estatu independentea sortzea da, elkarrekiko mendekotasun politiko eta ekonomiko beteta dagoen nazioarteko eszenatoki batean. Hauxe da gure helburu estrategikoa eta elkarlanaren oinarritzko arrazoia.

Gure aburuz, independentzia da Euskal Herriaren geroa bermatzeko modu bakarra. Gure herriak eremu guztietan mugarik gabe garatu ahal izateko baliabide osoak behar ditu. Gaur egun, Estatu bat osatuz bakarrik lor daiteke hori. Euskal Herriarentzat eta euskal herritar guztientzat hori da aukerarik onuragarriena.

Iraganak eta gaur egungo egoerak ere, argi utzi dute espainiar eta frantziar nazionalismoek ez dutela gure nazio identitatea zein izaera aitortzeko inolako asmorik, ez eta ezinbestekoa dugun garapena bideratzen uzteko asmorik. Horrek etorkizunerako ikasgaia eskaini digu. Estaturik

gabe, menpekotasuna eta inposizioa pairatzeko arriskua betirako izango dugu.

Burujabetza nahi dugu beste herriekin bakean bizitzeko eta baita haiekin elkartasunezko harremanak eraikitzeke ere. Euskal Herria prest izango da bere burujabetza beste batzuekin partekatzeko, adibidez, etorkizuneko Europa eratzeko orduan, baina hori egin ahal izateko, lehenik, burujabe izan behar du, horretarako autodeterminazio-eskubidea demokratikoki egikaritzuz. Mendekotasunetik ezin liteke elkarrekin ezer eraiki.

Horrexegatik diogu honako hau: euskal Estatua osatzea ez da inoren aurkako egitasmoa. Ez dugu harresirik nahi ez Ebron, ezta Aturrin ere. Euskal nazio proiektuaren garapenetik, bere dimentsio guztietan, beste estatu, herri eta nazioekin berdintasunezko harremanak bideratu nahi ditugu.

Euskal Estatuaren xedea, gainera, gure potentzialtasunak askatuko dituen proiektu ekonomiko eta sozial bati lotuta dago barne-barnean, betiere ikuspegi oso eta propio batetik eta herritar guztien bizi baldintzen hobekuntzari zuzendua. Euskal esparru sozioekonomikoak, Estatuaren osaketatik abiatuta, balore eta indar handia eta estrategikoa duela konbentziturata gaude.

4.2. Euskal lurraldeentzat egitura juridiko-politiko berriak

Euskal Estatua eraikitzeke bidean ezinbestekoa da Euskal Herrian indarrean diren egitura juridiko-politikoak gainditzea. Euskal nazio subjektuaren aitopenak eta instituzionalizazioak herri gisa Autodeterminazio-Eskubidearen ariketaren zutoinak jartzea ahalbidetuko digun fase bat ireki behar dugu. Euskal erakundeei ekonomi, gizarte, kultura zein hizkuntza gaietan eskumenak eta ahalmenak izateke aukera emango dieten marko juridiko-politikoak behar ditugu, egun indarrean dagoen errealitate murriztailea eta inposatzailea gaindituz.

EAERI dagokionez, hitzaurrean esan bezala, ezaguna da Gernikako Estatutuari buruz akordio hau sinatzen dugunok izan dugun ezadostasuna. Batzuek lanabes baliagarritzat onartu zuten eta besteek, aldiz, Euskal Herria asimilatzeke amarrutzat jo zuten. Gaur egun, guztiok bat egiten dugu marko juridiko-politiko berri baten premia aldarrikatzerakoan. Bere

garapenerako oinarritzat nazio aitortza eta herri borondatearekiko errespetua izango dituen marko juridiko-politiko berria behar dugu.

Nafarroa Garaia dagokionez, bistakoa da Foru Hobekuntzatik eratorritako erakundetzeak eta prozesu politikoak nafarren borondatea bahitzea izan dutela helburu, Euskal Herrirako proiektu komunari buruz erabakitzeko izan zitekeen aukerarik txikiena ere kentzeko. Horregatik, akordio honen bidez, nafarren borondateari mugarik jarriko ez dion agertokira iristeko ahalegina egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako egoera, berriz, jasangaitza da gaur egun, gutxien-gutxieneko onarpenik ere ez baitute euskal lurraldeek Estatu frantsesaren aldetik. Onarpen hori lortzeko dinamika ezberdinei lotzen gatzaizkie, gure proposamena hiru lurralde horientzat autonomia delarik.

Azken batean, indarrean diren egitura juridiko-politiko horiek gainditzeko arrazoi demokratikoa euskal herritarrok gure geroa libreki eta inongo, inoren eta inolako injerentziarik gabe erabaki ahal izatea da. Horregatik, egitura juridiko-politiko berriek geure barne-antolaketa eta kanpo harremanei buruz erabakitzeko eskubidea bermatu beharko dute. Horrela, lurralde zatiketaren auzia konpontzeko ere aukera izango dute lurralde ezberdinetako herritarrek, eta baita independentziaren aukerari heltzeko ere edota Estatu espainolarekin eta frantsesarekin beste harreman motaren bat aukeratzeko.

Egitura juridiko-politiko berriak eraikitzekeo prozedurak elkarrizketa eta negoziazioa izango ditu oinarri, eta edozein dela ere proposaturiko aukera, herritarren oniritzia jaso beharko du. Horretarako egin beharreko legeria-aldaketak eginda, estatuek herritarren nahi demokratikoa onartu beharko dute.

Egitura juridiko-politiko hori eraikitzekeo egingo den elkarrizketara eta negoziatorira eraman ditzakegun proposamenak alde aurretik gure artean hitz egitekeo eta adostekoko lan egitekeo konpromisoa hartzen dugu akordio hau sinatzen dugunok.

Egitura juridiko-politiko berriak, besteak beste, nazioartean bere proiektzioa landu beharko du, euskal estatu independentearen diplomazia aurreirudikatzekeo eta mundu zabalean irekitako ordezkartzen bidez euskal

Estatuaren aldeko herri, nazio eta estatuak adiskidetasunean eta lankidetzan partaide izateko.

Egitura juridiko-politiko berri horien definizioarekin eta garapenarekin batera, nazio erakundeak eraikitzea dugu helburu, une bakoitzean indarrean dagoen errealitate instituzionalaren ezagutzatik eta arretatik. Zentzu horretan, udal-izaerako nazio-instituzio bakarra eratzeko konpromisoa hartzen dugu, duela urte batzuk (Udalbiltzarekin) ekindako bidea berrartuz, orduko ekimenaren oinarrien baitan.

Era berean, gaur egungo egitura juridiko-instituzionaletatik nazio arloko ikuspegia bultzatuko dugu eta EAEn Lurralde Historikoen Legea aldatzeko ahalegin guztiak egingo ditugu. Egungo errealitate juridiko eta administratiboaz baliatuz, nazio eraikuntza eta antolakuntzan oinarritutako estrategia bultzatuko dugu beraz, bai izaera nazionala izango duten bitarteko espezifikoeekin, bai izaera iragankorra izan dezaketeneekin.

B) Gatazka politikoren konponbidea

Euskal Herrian jasaten dugun gatazkaren oinarria politikoa da eta, beraz, konponbide politikoa behar du. Aurreko atalean esan bezala, gatazkaren muinean euskal herritarrek beren buruaren jabe izateko duten egiturazko eragozpena dago. Aldi berean, gatazkak indarkeria ekarri du berarekin, eta indarkeria horren agerraldiek eta sufrimenduak bere horretan diraute, zoritxarrez. Akordio hau sinatzen dugunon xedea gatazka politikoa gainditzea eta, behin betirako, indarkeria desagerraraztea da. Horixe dugu lehentasun.

Helburu horiek lortzeko, sakontze demokratikoa ezaugarritzat duen prozesua bultzatzearen eta bururaino garatzearen aldekoak gara. Eragile politikoen arteko elkarrizketan, negoziazioan eta akordioan oinarrituta, euskal jendartearen erabakia errespetatzeko ezinbesteko konpromisoak ezarriko dituen prozesu demokratikoa, Euskal Herriaren osotasunean proiektu politiko guztien garapen demokratikoari atea irekiko diona. Giza eskubide guztien defentsarekiko eta soilik bide politiko eta demokratikoen erabilerarekiko gure konpromisoa exijitzen duen prozesu demokratikoa.

Horrenbestez, askotariko indarkerien errealitatea lehen baino lehen gainditzea lehenetsi behar dugu, eskubideen urraketarik eta sufrimendurik

gabeko etorkizuna eskainiz gizarteari. Konponbidea ez dela bide erraza izango jakinda ere, urratsak egiten hasi behar dugula ondo baino hobeto dakigu. Urrats horiek, gaurtik, indarkeria bera gainditze horretan hasteko konpromiso zehatzetan ere gauzatu behar dira.

Zentzu honetan, alderdien arteko elkarrizketa prozesua, **Mitchell Printzipioetan** oinarritzea egoki deritzogu, zehazki atal hauetan:

- Gatazka konpontzeko, soilik bide baketsu zein demokratikoekiko konpromisoa izatea.
- Indarra erabiltzeari uko egiteko konpromisoa, eta, beste norbait indarra erabiltzen saiatuko balitz, edo erabiltzeko mehatxu egingo balu alderdien arteko negoziazioen ibilbidean edo emaitzan eragiteko, aurkakotasuna azaltzea.

Abian den prozesu demokratikoak bere garapenerako ezinbestekoa du oinarrizko baldintza demokratikoak berreskuratzearekin batera zenbait alorretan aurrerapausoak egitea:

- Oinarrizko eskubide zibil eta politikoen onarpena; manifestatzeko eskubidea, antolatzekoa eta adierazpen-askatasuna ez dira zanpatuak izango. Zehazki, Alderdien Legea indargabetzea eta erakunde publikoetan pairatzen diren eta zilegiak ez diren egoerak konpontzeko neurriak ezartzea exijitzen dugu. Nazio Batuen Batzar Orokorraren Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta “Eskubide zibil eta politikoen nazioarteko ituna”, “Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna” eta “Emakumeen Eskubideen Karta”ren onarpena oinarritzat jotzen dugu.
- Preso politikoak neurririk gabe zigortzeko ezarritako neurriak indargabetzea (bizi arteko kartzela-zigorra, baldintzapeko askatasunak ukatzea, gaixo daudenak kaleratzeari uko egitea, sakabanaketa eta bakartze-politika...) eta guztiak Euskal Herriko kartzelatarara ekartzea. Euskal preso politiko guztiak kaleratzea helburu izango duen prozesuan urratsak ematen hasi beharko da.
- Jazarpen politikorako erabiltzen diren neurri eta tresna oro bertan behera geratzea, eskubide zibil eta politikoen eta jarduera politiko librearen aurkako prozesu judizialak barne.

- Herri-sektoreek pairatzen duten polizia indarren presioa desagertzea.
- Pertsona ororen kontrako jazarpenak eta mehatxuak desagertzea.

Soilik bide baketsu, politiko eta demokratikoekiko gure behin betirako konpromiso irmoa aitortu ondoren eta eragileen arteko elkarrizketarekin lortuko da akordio politikoa. Prozesu demokratikoaren hastapenetik gatazka politikoen ondoriozko indarkeriazko gatazka behin betirako atzean gera dadin, bidea jorratzen eta urratsak ematen hasiak gara. Jakin badakigu gero eta urrats gehiago egin beharko direla gatazkari lotutako faktore eta ondorioak konpontzeko eta gainditzeko. Euskal jendartearen borondate demokratikoarekiko errespetua bermatuko duen egoerara eraman behar gaitu prozesu demokratikoak.

C) Jendarte eredua. Euskal Herri berriaren bidean kudeaketa politikorako oinarriak.

Orain arte garatutako erreferentziak kontuan izanda -gatazkaren konponbidea, egitura juridiko-politiko berriak eta euskal Estatu-, hau sinatzen dugun erakundeok ekintza-batasuna ezartzeko eta kudeatzeko konpromisoa hartzen dugu, nazio-erakuntzaren prozesuari begira eta eredu sozial alternatibo baten garapenari begira estrategikotzat jotzen ditugun gai eta arloen inguruan.

Horrela, aipatutako jarduera adostua, hurrengo akordiotan modu zehatzagoan garatu beharko dena, honako ardatz estrategiko hauetan oinarritzen da:

- **DEMOKRAZIA PARTE HARTZAILEA:** Demokrazia parlamentarioak sakoneko berregituratzea behar du, herritarren parte hartzea bermatzeko neurri eraginkorrak behar ditu eta administrazio publikoa ustelkeriarako eta batzuen arteko mesedetarako ez dela erabiliko ziurtatu behar du. Boterea herritarrei itzultzea posible egingo duen sistema parte hartzaile hori lideratzeko konpromisoa hartzen du independentismoak.
- **GIZARTE JUSTIZIA:** Pertsonen eta gizarte-sektoreen ongizateak kezkatu egiten gaitu eta, aurrerakoiak izanik, gizarte-justiziaren alde

egingo dugu egungo gizarte-bazterkeria eta ezberdintasun-egoerei aurre egiteko. Ildo horri jarraituz, arlo sozioekonomikoari, lan-harremanei eta gizarte-babesari dagozkien berezko esparruak eratzearen alde egingo dugu, bai eta erregimen ekonomiko berezi baten alde ere. Erregimen horrek burujabetza ekonomikoa, fiskala eta finantzieroa bermatuko du eta Europar Batasuneko beste edozein erregimen ekonomiko eta fiskalekin baldintza-berdintasunean onartua izango da.

Euskal Esparru Sozioekonomikoa une bakoitzean indarrean dauden erakunde esparruetatik era oso batean bultzatu behar dugun helburu estrategikoa da, egungo globalizazio ekonomiko neoliberal honen testuinguruan euskal Estatuaren etorkizunarentzat eta bidezko jendarte eredu baten proiektioarentzat kontu erabakigarria izanik.

- **GARAPEN IRAUNKORRA ETA LURRALDE ANTOLAKETA:** Naturaren babesa eta lurraldearen arrazoizko erabilpena jendartearen eskubide kolektiboak dira. Gainera, gaurko eta biharko belaunaldiei begira elkartasunezko betebeharra da. Horrela, botere publikoek, pertsona fisikoek eta juridikoek bezala, natura eta ingurunea modu arduratsu eta arrazoizkoan erabili behar dute. Administrazio publikoen politika guztiak naturaren errespetuan oinarrituko dira, energia-iturriak eta baliabide naturalak zainduz eta bizitza ekonomiko eta sozialaren eskakizunen eta natura babestu beharraren arteko oreka bermatuz. Politika horiek nazio-ikuspegitik egituratuko dira beti eta, proiektu handiei dagokienean, horien sustatzaileei, parte hartzeko mekanismoak eskaintzeko eskatuko zaie, horien inguruko erabakiak hartzeko orduan.
- **PAREKOTASUNA:** Desberdintasun egoeren desagerpena, parekotasunaren eskaria eta emakumeen aurkako edozein motako indarkeriaren desagerpena lehentasunak dira guretzat garatuko dugun lana zehazterakoan, euskal Estatuaren sortzen den egunean emakumeek diskriminaziorik eta indarkeriarik paira ez dezaten lan egitea konprometitzen gara.

Horregatik, landuko ditugun edozein esparru sozialean zein politikoan, konpromiso hau beti kontuan izango dugula hitz ematen dugu, neurri zabalak antolatuz, baita, beharko balira, diskriminazio positibokoak ere, desberdintasunak eta indarkeria desager daitezten.

- **EUSKARA:** Euskara nazio-hizkuntza eta Euskal Herriaren nortasunaren ezaugarri bereizgarria izanik, bai eta hurrengo belaunaldientzako ondarea eta nazioarteko kulturarentzako ekarpena ere, euskararen aldeko estrategia bultzatzea hau sinatzen dugun indar politikoen lehentasunezko egitasmoa da, hiritar kultur anitz eta eleanitzek osaturiko Euskal Herri euskalduna lortzeko konpromisoa hartzen dugu. Horretarako, urrats egokiak eman beharko dira hizkuntz politika integrala egiteko eta, hizkuntz politika horren oinarri bezala, Euskal Herri osoan euskararen erabateko ofizialtasuna lortzeko.
- **HEZKUNTZA:** Euskal herritar guztiek kalitatezko hezkuntza jasotzeko eta beren nahien eta gaitasunen arabera prestakuntzan aurrera egiteko eskubidea dute. Horretarako, egungo eredu publikoa gaindituko duen berezko hezkuntza-sistema defendatuko da, euskal curriculumean eta eredu publiko, herritar eta parte-hartzailean oinarritua eta 3tik 16 urtera bitartean derrigorrezkoa izango dena, hain zuzen ere. Gainera, Euskal Unibertsitate Publikoa sustatuko da, bai eta Lanbide Heziketa eta Etengabeko Prestakuntza ere –publikoa zein itunpekoa– eta bereziki Lanerako Prestakuntza, lana aurkitzeko zailtasunak dituztenei begira, batik bat.
- **OSASUNA:** Osasuna instituzio publikoek eskaini eta bermatu behar duten oinarritzko eskubidetzat jotzen dugu. Gizarte osoarentzako osasun zerbitzu publikoko sistema baten alde gaude, kalitatezkoa, unibertsala eta doakoa, jendarteak jartzen dizkion baliabide ekonomikoetan oinarrituta. Osasun esparruaren xedea ez da dirua irabaztea, pertsonen osasuna eta ongizate fisikoa eta psikikoa baizik.
- **NAZIOTASUNA ETA HIRITARTASUNA:** Naziotasuna eskubidea da eta, beraz, euskal herritar guztiok euskal naziotasuna izateko eskubidea dugu, lurralde-arrazoiengatik inor baztertu gabe. Horren aldeko politika aktiboak garatuko ditugu: EHNA, nortasun-ikurrak, euskal nortasunaren kanpo-sustapena, euskal selekzioak, etab. Bestalde, Euskal Estatuko edozein udalerritan auzotasun administratibo finkoa duten pertsona guztiek hiritartasuna izango dute.

5. Akordioaren implementaziorako ardatzak

5.1. Indar metaketa

Euskal Estatua osatu nahi dutenekiko harremanak lehenetsiko ditugu, eta Autodeterminazio Eskubidea defendatzen dutenekin batera jardunen dugu, gaur egungo ezarpen eta ukapen egoera gainditzeko eta egoera berrietara joan ahal izateko geroz eta indar gehiago bil dezagun.

Akordio hau izenpetzen dugunontzat, justizia soziala lehen mailako helburua da, baita gizon-emakumeen arteko parekidetasuna ere. Horregatik, indar aurrerakoiak elkartzeko borondatea dugu. Zehazki, Euskal Herriko gehiengo sindikalarekin harremanak lehenetsiko ditugu, honetan ere haien ibilbidea eta autonomia errespetatuta.

Independentistok lortu nahi dugun indar-metaketak adierazpen zehatzak behar ditu. Independentziaren aldeko ibilbidean jendartean sor litezkeen ekimenekin bat egiteko borondatea dugu, betiere haien ibilmoldea eta izaera errespetatuta.

Era berean, indar-metaketa hori eta akordio honetan finkatutako helburuen garapena ahalbidetuko duten hauteskunde-arloko formulak bultzatzea beharrezkotzat jotzen dugu.

5.2. Konfrontazio demokratikoa

Apustu estrategikoari konfiantzaz eta indarrez ekin arren, jakin badakigu oinarri eta eduki demokratikoak onartzeko borondaterik eza eta inposizioa izan ditzakegula aurrez aurre. Hala erakusten dute frantziar eta espainiar nazionalismoek eta estatuen jarrerek.

Horregatik, konfrontazio zibiko, baketsu eta demokratikoan oinarritutako estrategia garatzeko konpromisoa hartzen dugu. Herriaren atxikimendua eta mobilizazioa izango dira gure bitartekoak, bai inposizioari aurre egiteko, bai prozesu demokratikoan aurrera egiteko, eta baita gure proposamen politikoak gauzatzeko ere, hau da, Euskal Herriaren independentzia lortzeko. Herriak izan behar du politikagintzaren subjektu eta Euskal Estatua eraikitze bidean herriak izan behar du beti hitza.

5.3. Nazio eraikuntza

Nazio-eraikuntza etorkizuneko Estatuaren zutoinak sortzeko jarduera dugu, eta horretan gure ahalak jartzeko konpromisoa hartzen dugu. Zehazki, erakundeetan izan ditzakegun ordezkarien lehentasunetako bat izan beharko du.

6. Jarraipenerako neurriak

Akordioaren betetzea eta garapena egiteko, sinatzaileok osatutako Koordinazio Batzordea sortuko dugu.

Euskal Herria, 2010eko ekainak 20